



Euskal Herriko
Down sindromearen
eta bestelako adimen
urritasunen Fundazioa





Bazkide egiten bagara...

Kuota bat ordaindu behar da, Fundaziora lehenengo aldiz joaten garenean edo diruz lagundutako programa batetik, programa pribatu batera igarotzen garenean azalduko digutena. Kuota hori ordaintzeak sarbidea ematen digu:

- Arreta goiztiarraren arloko eskola-jarraipena: aurrez aurreko bi saio (gutxienez) eta telefono bidezko edo posta elektronikoko saio bat. Kasuak kudeatzeko gainerako orduak (dokumentazioa, txostenak, orientabideak, hezkuntza-baliabideen koordinazioa eta aholkularitza- barne-koordinazioa)
- Gure artean programa
- Guraso taldea
- Aitona-amonen taldea
- Anai-arreben taldea
- Fundazioa aldizkaria eta Fundaziotik bidali ditzakegun gainerako agiriak (liburuak, materialak, liburuak eskatzeko liburutegiko bazkideen aukera, dokumentazioa, etab.)
- Erabiltzailearen edo senideei balorazioak (logopedia, fisioterapia,...)
- Ikastetxeei erabiltzailearen hezkuntza-proposamenari buruzko aholkularitza ematea.

Ez bagara bazkide egiten

- Arreta goiztiarraren arloko eskola-jarraipena: hiru hilean 30 minutu ikastetxeekin edo Berritzeguneekin telefonoz koordinatzeko. Ez da aurrez aurrekoa izango.

Euskal Herriko Down syndrome eta beste adimen urritasunen Fundazioa irabazi as-
morik gabeko erakundea da eta 1990ean sortu zen.

Orain dela 30 urte martxan jarri zenetik, pertsonen bizi-etapetan eta alor ezberdine-
tan gizarteratzea eta parte-hartzea izan da beti esku-hartze programak sortzeko eta
garatzeko oinarritzko eredua eta ardatz zuzentzailea, beren bizitza proiektua sustatuz
(hezkuntza, komunitate parte-hartzea, enplegua eta abar). Horixe izan da sektoreko
beste erakunde batzuetatik ezberdindu gaituen faktorea, adimen urritasuna (DI) edo ga-
rapen desgaitasuna (GD) duten pertsonen laguntzeko programetan: arreta goiztiarra, ai-
sialdia, logopedia, eskola jarraipena, autonomia programak, helduentzako prestakuntza
modularra, enplegu laguntzarekin, eta abar.

Gainera, AU eta GE duten seme-alaben bizitza proiektua garatzeko, familia edota tutore
legalak hartu ditugu beti ezinbesteko faktoretzat, izan ere, familiak edota tutore legalak
emozionalki ondo egon behar dira eta laguntza eta orientabideak izan behar dituzte
beren seme-alabak ondo egoteko eta pertsona gisa aurrera egiteko, ahalik eta autono-
mia, independentzia eta autokudeaketa gehien izan dezaten. Horri dagokionez, Funda-
zioarentzat familiak edota tutore legalak nahiko garrantzia du jarduera edo programa
ezberdinak dituen zerbitzu espezifiko bat izateko.

Gure ekintzaren jasotzaileak Down sindromea edo bestelako adimen urritasuna edo ga-
rapen desgaitasuna (edo horiek garatzeko arriskua, arreta goiztiarrean dauden haur-
txoen kasuan) duten pertsonak eta beraien familia zabala dira (aitak, amak, anai-arre-
bak, aitona-amonak, eta abar).

GURE EREDUA

Gure eredu orokorrak hiru ardatz hauek ditu: bizi kalitatea, kudeaketa kalitatea eta etika.
Eredu hori gure zerbitzuek bideratzen dituzten metodologia batean zehazten da (perso-
na ardatz duen plangintza), eta bere esparrua 1948ko abenduaren 10ean, Nazio Batuen
Batzar Orokorrak sortutako “Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak” eta, 2006ko
abenduaren 13an, New Yorken onetsitako “Desgaitasuna duten pertsonen eskubideen
nazioarteko konbentzioa eta eskumen protokoloak” osatzen dute.

“Bizi kalitate kontzeptuak pertsona batek izan nahi dituen bizi baldintzak barne hartzen
ditu, eta horretarako, pertsona bakoitzaren bizitzaren dimentsioen nukleoa adierazten
duten zortzi oinarritzko beharrak kontuan hartzen dira: ongizate materiala, pertsonen
arteko harremanak, ongizate emozionala, garapen pertsonala, ongizate fisikoa, autode-
terminazioa, gizarte inklusioa eta eskubideak”.

Bizi kalitatearen eredu honek zerbitzuen eta programen plangintza gidatu behar du, es-
anguratsuak, garrantzitsuak eta pertsonen beharretan eta lehentasunetan oinarrituak
izan daitezten. . Gure xedea, beraz, AU eta GD duten pertsonen eta haien familien edota
tutore legalen behar eta nahiei erantzutea da, beraien autodeterminazioa sustatuz, be-
tiere, kalitate printzipioek zehaztutako funtzionamenduan oinarrituz.

Gainera, gure lanaren oinarriak orientazio balioak eta bezeroak errespetatzea, arreta indibidualizatua ematea, familien edota tutore legalen segurtasuna, parte-hartzea, eskumenak, eraginkortasuna eta konpromisoa dira.

Hori guztia gauzatzeko, gure esku-hartzeak barne hartzen ditu:

- **Kanpoko zerbitzuekin koordinazioak:** aldundia, osasun zerbitzuak, gizarte zerbitzuak, hezkuntza zerbitzuak eta erabiltzaileen ikastetxeekin egiten diren koordinazio espezifikoak.
- **Familia aholkularitza eta laguntza:** familien eta tutore legalen egunerokotasunerako orientazioak, ahaidearen garapenari buruzko informazioa, seme-alabaren garapenaren arlo zehatzetarako (komunikazioa, garapen motorra, ikaskuntza-garapena) jarraibideak...
- **Arrakastaren pedagogiaren metodologia;** pertsona erabiltzailearen ahalduntzea bultzatzeko pertsonaren gaitasunetan oinarritzen gara eta haien testuinguruan izan ahal dituzten zailtasunei aurre egin ahal izateko laguntza eskaintzen zaie.

Gure kudeaketa-sistemak, emaitza hobeagoak eta gogobetekoak lortzeko helburuarekin, partaidetza-eredua jarraitu nahi du, profesionalen konpromisoa sustatuz eta gure bezeroekin harreman sendoak sortaraziz.

2018tik, Euskaliten kudeaketa aurreratuko eredua hartzen dugu erreferentziazat.

FUNDAZIOAREN AURKEZPENA

Fundazioa irabazi asmorik gabeko erakunde pribatua da eta patronatu batek eta profesional talde batek osatzen dute. Gehienbat Bizkaiko lurralde historikoan lan egiten dugu, baina, jarduketa eremua EAEko gainerako lekuetarako pertsonengana, familiengana edota tutore legalengana ere iristen da.

Xedea Gure xedea adimen urritasuna eta garapen desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien edota tutore legalen bizi kalitatea hobetzea da. Haien eskaeretan oinarritutako kalitatezko laguntza eskaintzen da, eskubide osoko.

Ikuspegia EHDSF adimen urritasuna eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen bizitza ziklo osoan zehar eta haien familientzako erreferentea izatea nahi dugu.

EHDSF-rentzat erreferente izateak hurrengoa esan nahi du: AU eta GD duten pertsonak, haien familiek eta gainerako erakunde eta elkarteek EHDSF-k eskubide indibidualak eta kolektiboak modu aktiboan defendatzen dituen eta inklusioa, autonomia eta bizitza independentea lortzeko helburuak kontutan izanda, banakako bizitzarako proiektuaren garapenean inplikatzeko den erakunde gisa ikustea da.

BALIOAK						
Pertsonetiko konpromisoa, ulermena eta hurbiltasuna	Adimen urritasuna edota garapen desgaitasuna duten pertsonak errespetatzea eta defendatzea	Esperientzia, eskumena eta berrikuntza	Kudeaketa aurreratua	Gardentasuna	Sarean lan egitea	Genero ikuspegia
Fundazioaren helburua, adimen urritasuna duten pertsonen, haien familiari edota tutore legalei laguntzea da. Beraiekin eta beraientzat lan egiten dugu.	Fundazioaren ezinbesteko oinarria adimen urritasuna duten pertsonen eskubide osoko herritar gisa dituzten oinarritzko eskubideak eta eskubide indibidualak defendatzea da. Horrez gain, Fundazioko pertsona guztien iritziak, ideiak eta ekarpenak baloratzen ditugu.	Urte asko darabatzagu adimen urritasuna duten pertsonen eta haien familiekin edota tutore legalekin lan egiten. Esperientzia horrekin, Fundazioak, prestatutako eta erakundearekin eta bere helburuekin konprometitutako profesionalen eta boluntarioen lantaldea du. Esperientziarekin batera, berrikuntza izaera dugu, garai eta behar berrietara egokitzen garelarik.	Fundazioan kalitatezko zerbitzuak eskeintzeko abaleginak egiten ditugu, programak eta prozesuak modu eraginkorrean eta jasangarrian hobetuz eta berrituz.	Horixe da komunikazioaren eta kudeaketaren oinarritzko balioa, konfiantza sortzeko eta mantentzeko, hain zuzen ere.	Beste erakunde eta talde batzuekin lan egin nahi dugu balioak eta xedeak partekatuz, lankidetzaren kooperazioa sustatuz.	Genero ikuspegia modu osatuan eta zeharkakoan jorratu nahi dugu, bai kudeaketa eta lidergo moduei eraginez, bai programa eta zerbitzuetan gehituz, hala, emakumeen erantzunkidetasuna eta ahal-duntzea sustatuz.



Arreta Goiztiarreko
Zerbitzua
(0 - 6 Ute)



Arreta Goiztiarreko Zentroa diziplina anitze-ko eta diziplina arteko zentroa da eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin itunduta dago, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuaren arabera. (EHAAn argitaratutakoa 2016ko martxoaren 7an.)

Euskal Herriko down syndromearen eta beste adimen urritasunen Fundazioak honako helburuak ditu:

- Desgaitasun intelektuala edo garapen desgaitasuna duten (edo horiek garatzeko arriskua duten) 0 eta 6 urte arteko umeen behin-behineko edo behin betiko beharrei ahalik eta azkarren erantzutea. Horretarako, ume horiei, beren familiei eta inguruari zuzendutako esku-hartzeak egiten dira.
- Senidearen garapen uneari buruzko eta desgaitasun intelektualari buruzko informazioa eskaintzea.
- Ahal den neurrian, erabiltzailearen garapena optimizatzea.
- Familiei laguntza emozionala eskaintzea egoera berrira egokitzeko (komunikazioa eta diagnostikoa) eta senidearen garapena sustatzeko orientabideak ematea. Horrekin, beraien egoera emozionala hobetu nahi da eta senideak tratamenduari esker hobekuntzak lortzea eta beraien bizi kalitatea hobetzea baita ere.
- Garapenean alerazioen bat agertzea saihestea edo murriztea, esku-hartze goiztiar eta prebentibo baten bitartez.


Arreta Goiztiarreko programarekin batera, honakoak egiten dira:

- Kanpoko zerbitzuekin koordinatzea: Aldundia, osasun zerbitzuak, gizarte zerbitzuak, hezkuntza zerbitzuak eta erabiltzaileen ikastetxeekin koordinazio espezifikoak.
- Familia aholkularitza eta laguntza: familiei orientabideak ematea egunerokotasunean, senideari buruzko informazioa ematea, seme-alaben garapenaren arlo zehatzei (komunikaziokoak, motorrak, ikaskuntza...) buruzko jarraibideak, eta abar.

Arreta Goiztiarreko esku-hartze taldea diziplinartekoa da, eta hainbat diziplinatako titulazioa duten eremu biopsikosozialeko profesionalek osatzen dute.

Zerbitzu honek erabiltzailearentzat zein familiarentzat programa desberdinak eskaintzen ditu:

- Tratamendu globala
- Fisioterapia
- Logopedia
- Psikomotrizitatea
- Familia-aholkularitza.



Haurren arlo guztiak batera lantzen ditugu, ikuspegi integral bat jarraituz. Gizarte-, emozio-, komunikazio- eta hizkuntza-arloak, motor lodi eta fina, kognitiboa, autonomia pertsonalekoa, pertsonarengan garatu beharreko osotasun gisa hartuta.

Dakira, gure esku-hartzea familiari laguntzea izango da eta elkarrekin lan egingo dugu helburu komunak lortzeko.

Banakako Arreta Programa



Eskaintzen duguna:

- Arreta psikopedagogikoa eta LEC
- Harrerarako eta adopzioetarako laguntza
- Tratamendu osoa
- Fisioterapia pediatrikoa
- Arnas fisioterapia
- Integrazio sentzoriala
- Logopedia
- Psikomotrizitatea
- Psikologia klinikoa
- Psikoterapia
- Terapia miofuntzionala
- Balorazioak eta jarraipenak
- Bipedestadoreak eta ferulak egitea

Banakako Arreta Programaren bitartez, Desgaitasun Intelektuala (DI) edo Garapen Desgaitasuna (GD) duten erabiltzaileen beharrei erantzun nahi zaie. Horretarako, esku-hartze osoa erabiltzailearekin, familiarekin eta bere ingurunearekin egiten da.

Esku-hartzea modu orokorrean egiten da, garapen arlo guztietan lan eginez: sozio-emozionala, komunikaziokoa, motorra, autonomia eta kognitiboa. Bizi kalitatea hobetzeko, egoera emozionala zaintzeko, autonomia pertsonala sustatzeko eta ikaskuntza berriak eskuratzeko beharrezko tresnak garatzen dira.

Azpiprograma ezberdinak daude eta erabiltzaileen arabera aplikatzen dira:

Tratamendu osoa

O urtetik aurrerako pertsonen zuzendutako programa da. Xedea, erabiltzaileak garapen arlo guztietan estimulatzeko da, eta, horrez gain, beharrezko laguntzak eskaintzea beraien garapen gaitasuna eta ongizatea bultzatzeko, ahalik eta modu osatuenean familian, eskolan eta gizartearen integratu daitezen eta autonomia pertsonala garatu dezaten.



Arreta psikopedagogikoa eta LEC

3 urtetik aurrerako erabiltzaileei zuzendutako programa da. Programa horien xedea, erabiltzaileei beharrezko gaitasunak ematea da etorkizuneko ikaskuntzak eskuratzeko trebetasunak, abileziak eta ohiturak garatu ditzaten eta beraien autonomia pertsonala eta soziala sustatzeko eta ongizate emozionala zaintzeko.

Horren helburu nagusia garapen arloetan esku hartzea da, eta programa erabiltzaile bakoitzera egokitzen da. Jarduerak ikaskuntza berriak eskuratzeko planifikatzen dira, eta ikaskuntza horiek, ondoren, barneratu eta beste testuinguru batzuetan aplikatzen dira.



Fisioterapia



Xedea, trebetasun motor lodiak eta finak eskuratzea da, bakoitzaren behar eta gaitasunen arabera garapen motor egokia garatzeko.

Zentroan bertan, eremu motor lodiaren eta finaren balorazioak egiten dira eta kalitate motorra eta jarrerazkoa hobetzeko orientabideak ematen dira. Era berean, lantaldeak material espezifikoak sortzen ditu (bipedestadoreak, AMIAk...), erabiltzaileen beharren arabera.

Psikomotrizitatea



Psikomotrizitate-programaren helburua heltze-garapena (gorputzekoa eta psikikoa) bultzatzea da, ekintza-, jolas- eta mugimendu-prozesu askeen bidez, pentsamendu- eta sinbolismo-prozesu abstraktuagoak bultzatzeko.

Logopedia

Desgaitasun intelektualak edo garapen desgaitasuna duten pertsonen zuzenduta dago, ume zein helduei.

Helburu nagusia, komunikazio eta hizkuntza adierazpen eta ulermen trebetasunak hobetzea da, eta, ondorioz, gaitasun sozial orokorra handitzea.

Hurbilketa pragmatiko naturalistako eredu bat da, eta bertan, testuinguru natural batean, hizkuntzaren komunikazio erabilera indartzen da.

Logopedia programan oso garrantzitsua da txikiak diren alderak linguistikoak eta komunikatiboak prebenitzea, ahozko hizkuntzaren zailtasun posiblen detektatzea (artikulazioa, hiztegia, esaldiak



egituratzea, elkarriketak) eta garapena estimulatzea, komunikazioa ahalik eta funtzionalena izan dadin.

Terapia mio-funtzional-lean aho eta aurpegiko eta entzumeneko



disfuntzioak, elikadura alferazioak eta hizkuntza eta hizkera alferazioak jorratzen dira, komunikazioko sistema handitzaileak eta alfernatiboak erabiltzen dira, eta teknologia berriak, informazioa eskuratzeko eta inguruarekin harremanak izateko.

Ezinbestekoa da familiari informazioa, laguntza emozionala eta aholkularitza ematea.

HAZI

Desgaitasun intelektual edo garapen desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako dago, ume zein helduei.

Helburu nagusiak, komunikazio estategiak sustatzea eta garapenean konpromiso handia duten eta laguntza behar orokorrak dituzten pertsonen gaitasunak eta egokitzapen abileziak garatzea dira.

Esku-hartzea garapenean eragina duten arloetan egiten da. Lehen-tasuna komunikazioari, estimulu basal (eremu somatiko, dardarazkoa eta propiozeptibo) eta multisentorialari ematen zaio, pertsona erabiltzailearen eta familiaren ongizate emozionala hobetuz.

Ikuspegi eko-funtzional batetik zuzendutako, HAZI programa ekintza funtzional-etan oinarritzen da. Ekintza hauek testuinguru natural batean gauzatzen dira eta adituak diren profesionalen





laguntzarekin aurrera eramaten dira, pertsonaren ongizate emozionala zainduz eta ahalik eta autonomia handiena lortzeko helburuarekin.

Ezinbestekoa da familiari informazioa, laguntza emozionala eta aholkularitza ematea.



Eskola Jarraipena



Eskola jarraipenaren programaren helburua, desgaitasun intelektuala edo garapen desgaitasuna duten ikasleak modu egokian eskolaratzeko laguntza ematea da, hezkuntza erantzuna beraien beharretara, gaitasunetara, interesetara eta ezaugarrietara egokituz.

Horretarako, aldizka koordinazio eta orientazio bilerak egiten ditugu, eta informazioa ikastetxeekin eta gainerako baliabideekin (Berritzegunea, itsuentzako baliabideen zentroa, eta abar.) partekatzen dugu.

Taldeari edo ikaskideei hitzaldiak emateko aukera.

Programa hau zeharkakoa da eta desgaitasun intelektuala edo garapen desgaitasuna duten pertsonen eskolaratze etapa guztian eskaintzen da (Oti 20 urtera arte).

Helburua: erakunde gisa martxan jarri ginenetik, eskola inklusioaren alde lan egin dugu. Eskolaratze prozesua errazten dugu eta eskolaratze prozesu osoan zehar (Oti 21 urtera arte) praktika egokienak eta normalizatuenak bermatzen ditugu.



Aneta
Taldeak



Eskaizten da:

- Jolas taldea
- Autonomia Pertsonaleko Programa
- Aisialdia Eta Denbora Librea
- Etxeratu - Bizitza Autonomoa
- Nagusientzako Prestakuntza Modularra
- LAN, Enplegua Laguntzarekin
- Begoñako Ama Eguneko Arreta Zentroa (EAZ)
- Entzun Gure Nahia: Autokudeatzaile Taldea
- Psikoterapia Taldea

Jolas Taldea



Xede nagusia, jokoaren bitartez, desgaitasun intelektuala eta garapen desgaitasuna duten pertsonen garapen pertsonala, gizarte trebetasunak eta komunikaziokoak sustatzea da, berdinen arteko harremanak, komunikazioa eta errespetua landuz. Beste alde batetik, gainerako pertsonekin harreman onak izateko gaitasun emozionalak lantzeko tresnak erraztu egiten zaien espazioa sortzen da,

Harremanetarako espazioak sortzeko aukera ematen zaie eta bertan gaitasun emozionalak, partaide izateko sentimendua, identitate pertsonala eta autokontzeptua sortzeko tresnak errazten dira.

Aukera honek egungo eta etorkizuneko bizi kalitatea hobetzen du. Gainera, ikaskuntza guzti hori beste testuinguruu batzuetara orokortuko da eta gizarteratzea eta bizi kalitatea hobetuko dira.

Jolas taldea programaren zutabeak hauek dira:

- Senideak taldean izan duen garapena eta lortutako helburuei buruzko informazioa ematea.
- Abileziak eta gaitasunak hobetzea, hala, erabiltzaileek, harremanak hobetzeko estrategiak izan ditzaten, bai taldean, bai esparru naturalean.
- Erabiltzaileen gizarte eta komunikazio trebetasunak garatzea berdinen arteko harremanak, komunikazioa eta errespetua sustatuz.
- Programa bitarteke 4 eta 12 urte arteko umeei zuzenduta dago.



Autonomia Pertsonaleko Programa

Autonomia pertsonaleko programa desgaitasun intelektuala eta garapen desgaitasuna duten 12 eta 20-21 urteen arteko pertsonen zuzendutako dago. Gure xedea, nerabeei hel-bizitzarako trantsizioan laguntzea da. Horretarako, hurrengo bi helburu orokorrak zehartu ditugu:

1. Haien gaitasun pertsonalak eta sozialak eta eskola eta gizarte inklusioa errazteko egokitzapen trebetasunen lanketa sustatzea.
2. Bizi kalitatea hobetzeko gizarte interakzioa aukerak erraztea.

1993tik komunikazioa, identitate pertsonala, afektibotasuna, sexualitatea, autonomia eta eskubideak lantzeko espazioak ahalbidetzen ditugu, garapen emozionalaren eta bizitza-proiektuaren sorketaren esparrutik. Saiok astean behineko maiztasuna dute.

Programa 2 ziklotan banatuta dago adinaren, garapen unearen eta landu beharreko alderdien arabera:

Lehenengo zikloan, parte-hartzaileak 12 eta 16 urte arteko nerabeak dira. Saiok goizean izaten dira, 09:00etatik 13:00etara. Horietan, kudeaketa emozionalean, autonomian, identitate pertsonalean eta berdinaren arteko harremanetan lan handia egiten da.

Bigarren zikloan, parte-hartzaileak 16 eta 20-21 urteen arteko pertsonak dira. Bertan, aurreko zikloko lanarekin jarraitzeaz gain, identitatean eta etorkizuneko itxaropenetan doikuntza garrantzitsua egiten da eta autodeterminazioa eta eskubideak oinarritzko mailan lantzen dira. Saiok arratsaldeetan izaten dira, 16:00etatik 18:30era.



12 urte baino gehiagoko desgaitasun intelektuala duten pertsonen zuzendutako programa da. Interakzio aukera normalizatuak eta babestuak eskaintzen ditu, dibertitu daitezzen, aisialdiaz gozatu dezaten eta taldean eta gizartean integratzeko trebetasunak hobetu ditzaten, hala, parte-hartzaileak beraiei aisialdia kudeatzeko gai izan daitezkeen une oro beharrezko laguntzak jasoz.

Horretarako, urtero aisialdi jarduerak antolatzen dira (asterokoak, hamabost egunean behingoak) eta asteburuetan irteerak, kirol jarduerak eta jarduera ludikoak egiten dira eta oporraldietarako programak ere antolatzen dira.

Larunbatak:

- Talde itxiak dira, eta larunbatetan batzen dira hainbat jarduera egiteko.

Asteburuetako irteerak:

- Urtean 3 aldiz asteburuetako irteerak egiten ditugu, bat hiruileko bakoitzean (ostiral arratsaldetik igande arratsaldera).

Jarduera ludikoak

- Kontzertuak, antzerkiak, musikalak, dantza, magia...horiek guztiak ostiral arratsaldeetan, larunbat goizetan edo igandeetan egiten dira.

Kirol jarduerak

- Beste erakunde, klub eta federazioekin lankidetzan kudeatzen diren taldeak dira.
- Urtero
- Astelehenetik igandera

Oporrak

- 10 eta 15 egun arteko iraupena izaten dute eta uztailleko bigarren hamabostaldian eta abuztuko lehenengo hamabostaldian egiten dira.
- Euskal Herriko, Kantabriako, Asturiasko, Nafarroako, Errioxako eta Gaztela-Leongo hainbat lekutara joaten gara.

Colonias

- Eguneko udalekuak: 14 urtetik gorako parte-hartzaileei zuzendua.
- Taldeak adin-taldean arabera osatzen dira: 14-18 urte; eta 18 urtetik aurrera.
- Gabonetako, Aste Santuko eta udako jaiegunetan egiten da, astelehenetik ostiralera, 9: 00etatik 16: 30k arte.
- Egiten ditugun jarduerak Gabonetan eta Aste Santuan izaten dira, eta jarduera espezifikoaren batera bideratutako campusak dira.
- Udan, ordea, bestelako jarduerak egiten ditugu: eguneko irteerak, hondartzarako irteerak, itsasontziz joatea, piraguetan ibiltzea, bizikletan ibiltzea, museoetara bisitak...



Jarduera horiek independenteak dira, izan ere, interes ezberdinekoak dira, ez dira beti garai berdinean antolatzen eta abar. Baina, era berean, elkarrekin oso lotuta daude, izan ere, xedea berdina da: parte-hartzaileei ahalik eta trebetasun eta baliabide gehien ematea aisialdiaz gozatu dezaten eta aisialdiari buruzko erabakiak hartu ditzaten.

Erabakiak hartzeko alderdi horixe da Aisialdiko eta denbora libreko programak beste programen ildoekin bat egiten duen alderdia. Izan ere, helburua, desgaitasuna duten pertsonen ahalik eta autonomia, independentzia eta autokudeaketa gehien lortzea da. Horretarako, in situ egoerak ahalbidetzen dira erabakiak hartu ditzaten eta iniziatiba izan dezaten, betiere, beharrezko laguntzak eskainiz.



Etxeeratu programaren helburua, desgaitasun intelektuala (DI) edo garapen desgaitasuna (GD) duten pertsonen laguntzea da, komunitatean guztiz gizarteratu daitezkeen eta bertan parte hartu dezaten. Hala, xedea, DI eta GD duten pertsonen, beraien garapen individuala eta soziala errazteko tresnak ematea da, bizi propioa proiektua eraiki dezaten, hain zuzen ere.

Programa hori 3 jarduketan ardatzetan egituratuta dago, eta guztien xedea DI eta GD duten pertsonen eta beren familien azaldutako beharrei erantzutea da:

1. Bizitza autonomorako prestatzeko programa (VPVA): programa horren xedea, DI eta GD duten gazte eta helduei hasierako ikaskuntza eta entrenamendu esperientzia ematea da, modu independentean eta autonomoan bizitzeko trebetasunak eskuratu ditzaten. Hau guztia San Adriango pisu partekatua batean gauzatzen da. Aldi baterako zerbitzua da eta urteko 365 egunetan behar duten laguntza jasotzen dute.

18 urtetik aurrera

2. Emantzipazioan laguntzeko programa (VEI): programa hauen xedea DI eta DG duten pertsona helduei laguntzea da, behin betiko familiaren etxea utzi nahi dutenean. Etxebizitza propioa eskuratzeko aukerarik ez dutenei laguntzeko, fundazioak muga gabeko gelak dituen etxebizitza bat du Txurdinagan. Urteko 365 egunetan irekita dago.

18 urtetik aurrera.

3. Etxean eta inguru hurbilean desgaitasun intelektuala duten pertsonen autonomia pertsonala sustatzeko programa: Programa honen xedea, DI eta GD duten pertsonen autonomia eta independentzia gehiena garatzeko laguntza eskaintzea da. Adin guztietako pertsonen zuzenduta dago: umeei, nerabeei eta nagusiei. Laguntza hori, etxeetan eta gainerako inguruetan autonomia eta independentzia izateko gauzatzen da. Laguntzak etxean eta joan-etorrietan eman daitezke.

8 urtetik aurrera.



Nagusientzako Prestakuntza Modularra



Nagusientzako prestakuntza modularreko programa desgaitasun intelektual (DI) edo garapen desgaitasuna (GD) duten 18 urte baino gehiagoko pertsonei zuzenduta dago. Lana egunerokotasunerako edota lanerako egokitzen trebetasunetan zentratzen da.

Gure helburu nagusia, gizarteratze aktiboa ahalbidetzea eta erraztea eta pertsona horiek eskubide osoko herritar gisa guztiz garatzea da, bai lanean, bai bizitza pertsonalean.

Hauxe da gure prestakuntza eskaintza:

Goizeko edote arratsaldeko modulu orokorrak: horien xedea, egunerokotasunerako trebetasunak edo gaitasunak eskuratzea edo hobetzea da, hala, bizi kalitatea eta egonkortasun emozionala hobetuz.

Lan aurrekoa: Oinarrizko eta zeharkako gaitasunak lantzen diren prestakuntza eskolak dira nagusiki, bizitza heldurako trantsizioarekin eta autonomia pertsonalarekin lotuta lan egiten delarik, hain zuzen ere.

Laneratzeko edote lan eta gizarte gaitasunak hobetzeko prestakuntza da.

- Autonomia pertsonala
- Trebetasun sozialak eta kognitiboak
- Lan trebetasunak
- Laneko arriskuen prebentzioa
- Teknologia berriak eta komunikazioa
- Ongizate emozionala
- Hizkuntzarako sarrera (EUK_ING)
- Profil profesionaletarako sarrera

Profil profesionalak: prestakuntza horren xedea, esparru profesionalerako eta etorkizuneko lanpostu baterako profil zehatzetarako ezagutzak eskuratzea da, baina, albo batera utzi gabe elkarrekin lotuta dauden eta laneratzeko prozesuan esku hartzen duten gainerako arlo pertsonalak eta sozialak; horiek jorratzea ezinbestekoa da, kontuan hartuz ikastaroa zein kolektibori zuzenduta dagoen.

Profil profesionalak 3 ikasturteko iraupena dute eta honela antolatuta daude:

1. ikastaroa: lan esparrua ezagutzea, hau da, enpresa, gizarte eta lan trebetasunak eta profil zehatzaren trebetasun teoriko eta praktikoen sarrera.

2. ikastaroa: lehenengo ikastaroaren jarraipena, profil zehatzaren ezagutza teorikoak eta praktikak gehituz.

3. ikastaroa: profesionaltasun ziurtagiri posiblea: profil zehatzaren trebetasun teorikoak eta praktikak. Enpresa arruntean prestakuntza praktikak egiten dira.

Hauxe da gaur egungo eskaintza: lan aurrekoa, administrazio laguntzailea, merkataritza laguntzailea eta Solairuko Zerbitzaria.

Urrutiko prestakuntza: arrazoi ezberdinak direla eta prestakuntza eskoletara joan ezin duten edo prestakuntza biak egin nahi dituzten pertsonen zuzenduta dago.

Ikasleek ordenagailuak erabiltzen jakin behar dute (mezu elektronikoak eta oinarrizko office), izan ere, hori ezinbestekoa da bidaltzen diren jarduerak egin ahal izateko.



LAN Enplegua Laguntzarekin



Laneratze programaren azken xedea desgaitasun intelektuala (EI) eta garapena desgaitasuna duten pertsonak lan merkatu publiko eta pribatu arruntean laneratzea da.

LAN programa 1994. urtean jarri zen martxan, eta bertan, enplegu lagunduaren metodologiaren aldeko apustua egiten da, **laguntzen paradigm**an oinarritzen dena, une eta intentsitate ezberdinak behatuz, beharren arabera.

Faseak:

- Enpresak bilatzea, informazioa, sentsibilizazioa, zereginen analisia...
- Hautagaiak bilatzea
- Aukeratutako pertsona lanpostura egokitzea
- Laneratzea - lanerako prestakuntza ematen duen pertsona
- Jarraipena - Laguntza naturalak

Zer eskaintzen die LAN programak enpresei?

- Langile prestatu eta gaituak
- Lan bitzita osoan zehar enpresari lankidetzat eta aholkularitzat ematen zaio.
- Laguntza zuzena eta lekuan bertan, lanerako prestatzailearen bitartez.
- 25 urteko esperientzia, desgaitasun intelektuala duten pertsonen lana lortzen eta mantentzen laguntzen.

Horrekin guztiarekin, enpresa solidarioagoa eta gizarte aldaketei irekitakoa sortzea ahalbidetzen da eta plantilla guztiarekiko komunikazio eta harreman gaitasuna hobetzen da, enpresa geroz eta gizatiarrago bihurtuz. Azken finean, enpresaren gizarte erantzukizuneko helburuak lortzen dira.

Begoñako Ama
Eguneko Aneta
Zentroa (EAZ)



Begoñako Ama EAZk BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN GIZARTE EKINTZA SAILAREKIN, EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA-EGUNEKO ZENTROA-rekin lankidetza hitzarmena du eta zerbitzua jasotzeko betekizunak, horrelako zentroetarako ezarritakoak dira.

Gure xede nagusia, adinez nagusiak diren eta desgaitasun intelektualak duten pertsonen trebetasun batzuk eskuratzea, hobetzea edo mantentzea da, hala, garapen pertsonala errazteko eta ahal den neurrian beraien autonomia sustatzeko, bizi kalitatea hobetuz, hain zuzen ere.

Esku-hartze lora hiru arlo hauetan oinarritzen da:



PERTSONALA

Norbere identitatea eta autoestimua garatzea eta harreman pertsonalak sustatu, hala, segurtasuna eta ongizate emozionala erraztuz

INSTRUMENTALA / FUNTZIONALA

Trebetasun mentalak mantentzea eta estimulatzea eta errendimendu funtzionala eta autonomia hobetzea eguneroko jardueretan

SOZIALA / KOMUNITARIOA

Norbere identitatea eta autoestimua garatzea eta harreman pertsonalak sustatu, hala, segurtasuna eta ongizate emozionala erraztuz

Hauek dira gaur egungo laneko arloak:

PERTSONALA

Autolaguntza
Komunikazioa
Bizi proiektua
Agenda
Erlaxazioa
Emozioen tailerra
Pilates
Zumba
Hidroterapia
Fisioterapia

INSTRUMENTALA

Trebetasun kognitiboak
Sormen espazioa
Idazketa
Teknologia berriak
Irakurketa
Sukaldaritza
Eguneroko jarduerak

SOZIALA/KOMUNITARIOA

Irteera kulturalak
Arte laborategia
Egunerokotasuna
Esperientzia partekatua

Gure **metodologia aktiboa eta parte-hartzailea da** eta erabiltzaile guztiekin aplikatzen dugu, garapen individualizatuko programa batean oinarrituz, eta **afektibitateari eta hurbiltasunari** balio berezia emanez, **erabiltzaileekin** zein **familiekin esku hartzen dugunean**.

Gela Multisentsoniala




Fundazioak lanerako sistema berritzaile bat du, estimulazio kognitiboa eta sentsoniala modu pertsonalizatuan eta adin guztietarako egokituta batzen dituen.

Tresna pertsonaren oinarri kognitibo eta sentsonialetatik abiatzen da, eta informazioa modu ebolutiboan jaso eta aztertzeko aukera ematen du.

Besteak beste, hurrengoak egiteko aukera ematen digu gela sentsorialak:

- Hezkuntza esku-hartzeari alternatiba berriak eskeintzen ditu.
- Terapia sentsokognitibo egokituak aurrera eramane, bai maila pertsonalean, bai talde mailan.
- Pertsona bakoitzaren estimuluekiko sentikortasuna aztertzea, eduki anitzeko lanketa errazteko.
- Miaketa, mugimendua eta komunikaziorako aukerak erraztuko dituen giro egoki eta kontrolatuak diseinatzea.
- Erabiltzaileen ongizate fisiko eta emozionalean lagundu.




Entzun Gure Nahia: Autokudeatzaile Taldea



Entzun gure nahia autokudeatzaileen elkarte bat da, adimen-urritasuna duten pertsonen osatua. Gure helburu nagusia kolektiboaren eskubideak aldarrikatzea da.

Gure helburua lortzeko jarduera desberdinak egiten ditugu, hala nola: hitzaldiak ikastetxeetan, institutuetan, unibertsitateetan... beste autokudeatzaile batzuekin topaketak, sentsibilizazio-kanpainak, irisgarritasunari buruzko prestakuntza...



Taldeko Psikoterapia

Talde psikoterapeutikoen programa 2017an sortu zen. Helburua, taldean arazo berdinak dituzten erabiltzaileei erantzutea eta arazo horiek taldean partekatzea da, hala, beste pertsona batzuen egoeren berri izateko eta taldean, arazo horiei aurre egiteko tresnak garatzeko.

Talde terapeutikoen xedea, taldean lan eginez lan egiteko eta pentsatzeko lekua sortzea da. Gainera, bilerak horiek psikoterapeuta batek bideratzen ditu. Helburu nagusia, parte-hartzaile bakoitzaren espe-

rirentziak azaldu eta horiek elkarrekin partekatzea da, hala, guztien ongizatea garatzeko edota sustatzeko. Gatazkak eta zalantzak jorratzen eta lantzen dira, baita norbere burua ezagutzea ere, eta harremanetarako estrategia dinamikoak sustatzen dira.

HARTZAILEAK

Desgaitasun intelektuala duten 18 urte baino gehiagoko pertsonen zuzenduta dago, betiere, parte hartu nahi baldin badute. Taldeak 3 eta 7 pertsona artekoak izaten dira, eta honakoak kontuan hartuz antolatzen dira:

- Behar partekatuak
- Garapen etapak
- Estilo kognitiboak

Psikoterapia Indibiduala eta Familiakoa

Fundazioan eskaintzen den psikoterapiaren helburua, "gabeziak dituen izatearen" ohiko diagnostiko biktimizatzaileari alternatiba bat bilatzea eta ikuspuntua aldatzea da, hala, objektuekin eta gainerakoekin harreman osasuntsua eraikitzeko, berregituratzeko, birkokatzeko eta berrezartzeko, segurtasun eta intimitate espazio bat eskainiz eta erabiltzaileak bere mugak zeintzuk diren jakinik, era berean, bere baliabide pertsonalak eta aukerak gehieneko mailan garatuz, eta, ondorioz, guztizko bizi kalitatea eta ongi-zatea izanez.

HARTZAILEAK

Programa hori desgaitasun intelektuala duten pertsonen eta beraien familiei zuzenduta dago.

HELBURU NAGUSIAK

- Aldaketak sustatzea, desgaitasun intelektuala duen pertsonaren edota familien osasun mentala hobetzeko.
- Bizitzako zailtasunei eta arazoei hobe aurre egiteko tresnak eskaintzea. Bere oharkabeko prozesuei buruzko informazioa.
- Harremanetarako beharrak estaltzea, besteak beste, onartua izateko beharra, segurtasun beharra, eta abar.
- Nortasuneko alderdi desorekatuen inguruan lan egitea.
- Autonomia erraztea, norberaren prozesu psikikoak aztertzea eta ezagutzea erraztuz.
- Familiei eta inguruko pertsonen laguntza emozionala eta egoera estresagarriak maneiatzeko estrategiak ematea.
- Erabiltzaileen ikastetxeei orientazio zerbitzua ematea.



FAMILIENTZAKO BABES ETA LAGUNTZA PROGRAMAK

Programa horien bidez, senitartekoaren bizi-prozesuan laguntzeko eta orientatzeko premia horiei erantzun nahi zaie, familiei aditu bat edo hitz egin ahal zango duen, emozionalki lagunduko dien eta bere kezkek partekatu ahal zango dituen beste familia bat eskainiz. Horrez gain, beraien antzeko egoeran dauden beste guraso batzuekin ere hitz egiteko aukera izaten dute, eta, beraz, beraien itxaropenak egokitzeko eta senideei bizi proiektuan laguntzeko eta orientatzeko aholkuak eta laguntza jasotzen dituzte.

Familientzako aholkularitza

Helburu nagusia, desgaitasun intelektuala eta garapena desgaitasuna duten pertsonen eta fundazioko familiei laguntzea da beraien eskubideei, gizarte eta komunitate baliabideei eta horien izapidetzeari dagokionez, eta, horrez gain, izan ditzaketen beharrak dektatzatzen dira.

Harrera adinen arabera banatutako arduradunarekin egiten da. Bertan, familiarekin edota desgaitasun intelektuala edo garapen desgaitasuna duten pertsonekin lehenengo kontaktua ematen da; erabiltzaileen eta beraien inguruaren ibilbidea ezagutzen da, fundazioari eta programei buruzko informazioa ematen da eta beharrezkoa denean, kanpoko baliabideak aipatzen dira eta horietara bideratzen dira.

Ibilbidean zehar, familiekin edota erabiltzaileekin banakako saioak egiten dira desgaitasun intelektuala edo garapena desgaitasuna duten pertsonen garapen etapei buruzko informazioa eta orientabideak eskainiz. Hala, baliabideen berri ematen zaie eta esaten zaie nora jo behar duten horiek eskuratzeko, beharrezkoa denean, fundazioaren programa batera bideratuz.

Era berean, ikuspuntu juridikotik erabiltzaileek eta familiek izan ditzaketen zalantzak eta kontsultak jaso eta bideratzen dira. Adibidez, jarduteko gaitasuna aldatzeko prozedurarekin, oinordekotza eskubidearekin desgaitasun intelektuala duten pertsonen eskubideak defendatzearekin, eta abarrekin lotutakoak.

Gainera, familia aholkularitzan erabiltzaileek eta familiek behar dituzten baliabideen jarraipena eta koordinazioa egiten da, besteak beste, oinarritzko gizarte zerbitzuenak, udalenak, aldundiarenak, tutoretza institutuenak, eta abarrenak.

Familien eskola

Familien eskolana desgaitasun intelektuala edota garapena desgaitasuna duten pertsonen familiek izan ditzaketen zalantzei, kezkei eta galderei erantzuten zaie eta orientabideak ematen zaizkie.

Helburu nagusia, familiei beren seme-alaben hezkuntzarekin eta hazkuntzarekin eta desgaitasunari, osasunari, legezko alderdiei, baliabideei eta bestelakoei buruzko orientabideak ematea da.

Azken finean familiei, informazioa eta estrategiak eman nahi dizkiegu ezgaitasunari aurre egiteko tresna gehiago izan ditzaten, izan ere, ezgaitasunak beraien egunerokotasunean ere eragiten du, eta, horretaz gain, baliabideei buruzko informazioa eta estrategiak ere ematen zaizkie.

Familien Eskolako jarduerak egiteko, gure fundazioko profesionalak esku hartzen dute, izan ere, tailer bakoitzean lantzen diren gaietan adituak dira.

Tailerrak hilean behin egiten dira Zornotzako eta Bilboko lokaletan, eta tailerra emango duen profesionala gaiaren arabera aukeratzen da.

Tailerrak praktikoak dira nagusiki, hasieran sarrera teoriko labur bat egiten da, familiek zalantzak partekatu eta ebazteko. Ordu eta erdiko iraupena dute gutxi gorabehera.

"Gure Artean"

- Profesional batek fundazioko familien prestakuntza eta jarraipena egiten du, hala, familiek, jaio berrien gurasoei, iritsi berrienei edo une zailak pasatzen ari direnei laguntzeko.
- Bisitak egiteko bitartekaritza.
- Bilera bakoitza bukatu ondoren, profesional arduradunak harrera gurasoei laguntzen die.

Gurasoentzako, anai-arrebentzako eta aitona-amonentzako taldeak

Bilera hauetan, familiek proposatutako intereseko hainbat gai jorratzen dira eta, bertan, gaiak zuzentzen dituen eta gaiet buruzko informazioa ematen duen profesional bat egoten da. Helburua esperientziak partekatzeko eta informazioa eta orientabideak jasotzeko espazio bat sortzea da.



PERTSONA ARDATZ DUEN PLANIFIKAZIOA

Zer da

Lankidetza prozesua da. Bertan, pertsonari eta bere familiari bizi proiektua planifikatzen laguntzen zaie, beraien nahiak eta helburu pertsonalak lortzeko beharrezko pausoak eman ditzaten.

Pertsona baten bizitzako arlo guztien inguruan hausnartzen da: osasuna, laguntasuna, familia harremanak, laguntzak, lana, eta abar.

Familiarekin, lagunekin eta hurbileko gainerako pertsonekin batera, honakoak egin ahal izatea da xedea:

- Nola bizi nahi duen erabakitzea.
- Inguruak ematen dizkion aukerak identifikatzea.
- Bere inguruan dauden oztopoak zeintzuk diren jakitea.
- Aurrera egiteko norabide berriak aurkitzea.
- Etorkizunerako plan bat sortzea, bere ametsak betetzen joateko.

Zertarako

Pertsona ardatz duen plangintzaren xede nagusia, pertsonak beren helburu pertsonalak lortzeko eman beharreko pausoak planifikatzen laguntzea da.

Beti ere, pertsonenganako errespetuan, pertsonen duintasunean eta gaitasunetan oinarrituz.

Nola egiten dugu

Bileretan, erabiltzaileak eta hurbileko taldeak (familia, lagunak, profesionalak, lankideak, aisialdiko laguntzaileak, eta abar) eta bideratzaileak etorkizunerako plan pertsonalizatua sortzen dute, epe ertain eta luzerako helburu pertsonalak ezarri.

Prozesuak 4 fase hauek ditu:

- 1 FASEA:** OINARRIAK EZARTZEA
- 2 FASEA:** NORBERE PROFILA SORTZEA
- 3 FASEA:** NORBERE PLANA SORTZEA
- 4 FASEA:** NORBERE PLANA BERRIKUSTEA

PARTE HARTU NAHI BADUZU EDO INFORMAZIO GEHIAGO NAHI BADUZU,
ZURE ERREFERENTZIAZKO LANGILEAREKIN JARRI HARREMANETAN.



BILBON

Begoñaren Ama Birginia, 12-14 atzekaldea · 48006

Tel. 94 66 11 222 - 94 47 90 284

AMOREBIETA

Nafarroa Kalea, z.g. - 2. Solairua · 48340

Tel. 94 66 11 222 - 94 47 90 284

down@downpv.org

www.downpv.org



Fundación Síndrome de Down del País Vasco